

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA

#### **Jendaurrean jartzea zabor bilketaren zerbitzu publikoaren tasaren 2020ko bigarren seihilekoaren errolda, eta kobrantza epea irekitzea**

Eginda dago zabor bilketaren zerbitzu publikoaren tasaren 2020ko bigarren seihilekoaren errolda. Hortaz, honen bidez, errolda hori jendaurrean jarriko da hamabost egun baliodunaz, iragarki hau ALHAOn argitaratzen den egunetik kontatzen hasita, interesa dutenek aztertu ahal izan dezaten eta, hala badagokio, egoki derizten alegazioak eta erreklamazioak aurkeztu.

Alegaziorik aurkezten ez bada, errolda behin betiko onetsizat emango da, eta hasiera emango zaio kobratzeko aldiari.

#### I. Ordaintzeko epea:

A) Borondatezko epea: 2020ko irailaren 1etik azaroaren 1era.

B) Betearazte aldia: 2020ko azaroaren 2tik aurrera betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte errekaruak, premiamendu murriztukoak eta arruntekoak, ordaindu beharko dira, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, adierazitako epeetan.

#### II. Ordaintzeko lekua eta modua:

A) Bankuetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenek ez dute beste ezer egin beharrik, baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa bankuan helbideratuta ez daukatenek, udalean eskatu ahal izango dute helbideratzea, edota diru sarrera egin Banco Popular edo Kutxabank finantza erakundeetan udalak dauzkan dirubilketa kontuetan.

Ediktu honek, orobat, betetzen du erroldan sartuta dauden likidazioak kolektiboki jakinarazteko zeregina, Arabako Zergen Foru Arau Orokorrak 98.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak direnez, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da Alkatetzan, ordaintzeko borondatezko epean, edo hilabeteko epean, hura amaitu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

Lapuebla de Labarca, 2020ko uztailaren 20a

*Alkatea*

**MARÍA TERESA CÓRDOBA FERNÁNDEZ**